

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

GAZTEAK ETA HIRI- POLITIKA PUBLIKOAK: NOLA ERRAZTU POLITIKEN KO- SORTZEA GAZTERIAREKIN

LABURPEN EXEKUTIBOA

09/2024

 <https://doi.org/10.18543/LUTA3943>


Claudia Icaran Díaz de Corcuera, Usue Lorenz Erice
y Miren Estensoro García


CUADERNOS ORKESTRA, 09/2024. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoa gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/ANTK6555>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/LUTA3943>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/ZGRF1838>

© Claudia Icaran Díaz de Corcuera, Usue Lorenz Erice y Miren Estensoro García

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua –Deusto Fundazioa

www.orquestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Ikerketa-lan hau UPLIFT (*Urban policy innovation to address inequality with and for future generations*) ikerketa-proiektuaren emaitzetako bat da. Eskerrik asko proiektuan laguntzeagatik Barakaldoko Udalari, bereziki Gazteria eta Gizarte Ekintza Sailei, baita Eretza Barakaldoko Hirigintza Kudeaketarako Sozietateari ere. Aldi berean, proiektu hau gauzatzea ahalbidetu duten gazteei bereziki aitortzen diegu haien inplikazioa.



Proiektu honek Europar Batasunaren Horizonte 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren finantzaketa jaso du, 870898 dirulaguntza hitzarmenari jarraiki. Informazio gehiago <https://uplift-youth.eu/>

Laburpen exekutiboa

Barakaldoko Udalak, 2021eko irailtik 2023ko ekainera bitartean, udalerriko gazteekin eta Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin lankidetzan jardun zuen gazteentzako etxebizitza-politiken udal-agenda bat eraikitzeko.

Udalaren, Barakaldoko gazteen eta Orkestraren artean egindako agenda hori Europako UPLIFT-*Urban policy innovation to address inequality with and for future generations* proiektuaren barruan dago eta Europar Batasuneko Horizonte 2020 (H2020) ikerketa- eta berrikuntza-programak finantzatzen du. Proiektuaren helburua gazteen ahotsa etxebizitzaren, hezkuntzaren eta enpleguaren arloetako gazte-politiken erdigunean jartzea da. Horretarako, Europako hiriguneetako gazteen egoerari buruzko azterketa kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzea proposatzen du proiektuak. Europako lau hiritan (Amsterdam (Herbehereak), Barakaldo (Espainia), Tallin (Estonia) eta Sfantu Gheorghe (Errumania)) integratzen ditu pilotuak, eta horietan ikertzaileek, tokiko erakunde publikoek eta gazteek udal-politiketan eragitea bilatzen da.

Gaur egun, giltzarria da horrelako agendak eraikitzea, gazteek etxebizitzaren arloan duten egoera hobetzeko. 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 31 bakarrik dago emantzipatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta emantzipatzeko batez besteko adina 29,8 urtekoa da. Horrez gain, garrantzitsua da haiekin zuzenean lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen % 75,6k uste baitu erakundeek ez dituztela aintzat hartzen beren iritziak¹.

Barakaldoko prozesu pilotuak iraun zuen ia bi urteetan, Udaleko eta Eretzako (Barakaldoko Hirigintza Kudeatzeko Sozietatea) gizarte ekintza eta gazteria arloetako politikariek eta teknikariek eta udalerriko 20 gaztek parte hartu zuten. Prozesua bi lantaldetan garatu zen. Alde batetik, gazteen taldeak bere esperientziak partekatzen zituen eta bere iradokizunei forma ematen zieten hileroko bilera batean. Ondoren, beren eskaerak teknikariei eta politikariei helarazi zitzaizkien hilean behin egiten ziren topaketetan. Topaketa hauetan gazteen taldeko bi ordezkariak parte hartzen zuten. Prozesuaren azken fasean, parte hartzaile guztiek izan zuten aukera agendaren behin betiko bertsioa lantzeko.

Orkestrako ikerketa-taldeak prozesu hori erraztu zuen. Beren esperientziaren ondorioz, ikertzaileek mezu nagusi bat ondorioztatzen dute:

Politika publikoen lanketan elkarlanean aritzeak gazteen beharretara hobeto egokitzen diren neurriak ekar ditzake, eta etxebizitza bezalako gaiei buruz erabakitzeke duten gaitasuna areagotu.

¹ Paragrafo honetan jasotako datuak hurrengo txostenetan jasotzen dira: *Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin, 2023* (Gazteen Euskal Behatokia, 2024) eta *Gazteen adierazleak 2023. Euskadiko Gazteen Panorama* (Gazteen Euskal Behatokia, 2024).

Gainera, hori lortzeko, zenbait gai hartu behar direla uste dute ikertzaileek:

Erakunde publikoen eta herritarren arteko lankidetzak, politika publikoak eraikitzeko, prozesu luzea eta garestia da.

Horregatik, *sine qua non* baldintza da erakunde publikoek baliabide ekonomikoak eta denbora izatea ekimen horiek garatzeko. Gainera, erakunde horietan lan egiten dutenen motibazioa eta konpromisoa beharrezkoak dira. Azkenik, garrantzitsua da talde politikoaren eta teknikoaren artean gaitasunak sortzea, prozesu parte hartzaile eraginkorrak eta demokratikoak kudeatzeko.

Ikertzaileek berebiziko garrantzia izan dezakete gazteekin politika publikoak egiteko prozesuak errazteko orduan.

Partaidetza-esperientzietatik eratorritako lan akademikoak sortzeaz gain, erakunde akademikoek politika publikoak garatzeko prozesuetan erraztaile rola bete dezakete. Gazteekin prozesuak erraztean, ikertzaileek beren errealitatearen inguruko ezagutza sortzera eta hori eraldatzeko ekintzei ekitera bultzatzen dituzte.

Erakunde publikoen eta gazteen arteko lankidetzak bermatzeko, badira erraztea ahalbidetzen duten funtsezko elementu batzuk.

Illo horretan, garrantzitsua da erraztaileek saio bakoitzaren prestakuntzan, garapenean eta balorazioan eragitea, honako hauek lortzeko:

- Espazio seguru eta dibertigarrien eraikuntzan lan egitea;
- Ikuspegi partekatu baten eraikuntza sustatzea;
- Erabakitze gaitasuna eta erantzunkidetasuna sustatzea;
- Testuinguruari, gaiari eta prozesuari buruzko ezagutza espezifikoa gizarteratzea; eta
- Prozesuaren emaitzak agenda partekatu batean islatzea.

Bost elementu horiek kontuan hartuta lan egiteak ahalbidetu du gazteen premiei buruzko ikuspegi partekatua sortzea eta prozesuan gazteek erabakitze duten gaitasuna bermatzea. Azkenik, Barakaldoko gazteek etxebizitzaren arloan dituzten premiei aurre egiteko neurriak jasotzen dituen dokumentu bat sortu da elkarrekin.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orkestra.deusto.es